

B

BARREN

Badatoz santanak





KEBAB TXOHAN JATETXEA



Aukeratu pikanlearekin nahiz pikanterik gabe!

Janari azkar eta zapoetsua

Plater konbinatuak eta menuak oro baditugu.

✓ **Dohram**



✓ **Lahmacun**



✓ **Kebab**



✓ **Patatak,
Entsaladak,**



San Francisco, 58 behea • ELGOIBAR
Tel.: 688 634 356



Eramateko eskaera egin dezakezu!

LAGUNAK KOLTZOI DENDA - TEXTIL HOGAR

ZATOZ GURE ERAKUSKETA BERRIA IKUSTERA!



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



Santa Ana eguna

Ari da uztailaren 26a iristen, mendarorrontzat urteko egunik desiratuena, kamiseta zuria eta zapi berdea janzteko eguna. Santa Ana eguna, hain zuzen ere, mendarorron patrioiaren omenezko eguna. Urtero bezala, herritar askok hartuko du ermita zaharrerako bidea. Batzuk gogo biziz igoko dira, txorizo ogitartekoa eta txakoli freskoa azkar asko dastatu nahian. Beste batzuk, aldiz, astiroago, aurreko egunetako ajeak direla eta ez direla. Hori bera egingo dute Bustin-Alde elkartekoek, urteroko legez. Izan ere, Bustin-Aldeko bazkideak dira lehen aipatutako txorizo eta txakolina zerbitzatzen dituztenak.

Jaiak hasi aurreko asteetan hasten da horien lana. Lehenik jatekoa eta edana eskuratu behar izaten da, egunean bertan dena prest izango bada. Santa Ana eguna baino egun batzuk lehenago ermitara igo eta barra jarri behar izaten da. Patrioiaren egunean ere goizo ekiten diote lanari. 9:00ak aldera elkartera joan eta txorizoa egosten jarri behar izaten da, ondoren edariak hartu eta Santa Anara igotzeko, han freskatzeko jarri ahal izateko. Izan ere, 11:00etarako prest egon beharra dauka denak. Meza ondoren izaten dute lanik, jende ugari batzen delako han goian.

Haiei jana eta edana zerbitzatu, bertsolarien adar jotzeak entzun, eta erromeria amaitu ostean, dena jaso eta txukun-txukun laga behar izaten dira inguruak, handik inor pasatu ez balitz moduan lagatzeko. Aurten, baina, elkarte horretako bazkideek galdera bat darabilte buruan bueltaka aspalditxotik. “Non jarriko dugu barra?”

Jakingo duzueenez, 2009.urte hasieran ermitaren aurreko aldean lurjausi bat izan zen, eta lurjausi hark ermitarainoko bidea irentsi zuen. Horrexegatik iazko urteko Santa Ana eguna Trinitate basilizan ospatu genuen. Handik denbora batera ekin zioten ermita ingurua eraberritzeari, eta diotenez nahikoa aurreratuta doaz lanak. Horma altxa ei dute, baina ermitara eramaten duen bidearen arrastorik ez dago artean. Eta biderik gabe, nola igo?



Borja Rodriguez

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Bustin-Alde elkarte gastronomikoko bazkideak dira

Santa Ana ermita ondoan txorizoa eta txakolina zerbitzatzen dituztenak”



TXIKI EGUNEKO MENUA

- ➔ **KONPARTITZEKO**
- Entsalada mistoa.
- ➔ **1. PLATERA**
- Urdaiazpikoa, langostinoak eta entsalada errusiarra.
- ➔ **2. PLATERA**
- Ollaskoa, eskalopea edo txipirolak tintan aukeratzeko.
- ➔ **ETXEKO POSTREAK**
- ➔ **SAGARDOA, URA, COCA-COLA eta URTEKO ARDOA**

PREZIOA: 25€ BEZ BARNE

sigma jatetxea kafetegia


TEL.: 943 748 531

amets txurruka

Piriniotako etapak zituen begiz jota, eta Tourrera irten bezperan, ilusio handiarekin zegoen, baina laugarren etapan derri gorrean laga behar izan zuen tropela, lepauztaia apurtuta. 2010a ez da Amets Txurrukaren urtea izan (Markina, 1982). Vueltari begira dago orain, baina beldur da bizikleta azkarregi hartu eta aurten hirugarrenez min hartzeko.

Ainara Argoitia

“Piriniotan protagonista izaten ahaleginduko dira taldekideak”



Tourrera irten bezperan, lehenengo astebetean ahal zen moduan pasatu eta ondoren egurra emateko gogoz zindoazela esan zenigun. Ez duzu zorte handirik izan. Nola zaude orain? Egunetik egunera hobeto nago, baina handik etorri eta lehenengo hiru-lau egunak oso gogorrak izan dira. Lepauztaia apurtuta daukat, baina horretxek ematen dit minik gutxien, egia esan. Bestela daukat mina nik. Gorputz osoa daukat minduta eta handituta. Bere gogorrean, baina, min fisikoa eramangarriagoa da. Gogorra da hau. Urte osoa Tourrerako prestatzen ibili gara, eta sasoiko joan nintzen, gainera. Lehenengo hiru etapetan oso gustura ibili nintzen, eta mendiko etapak hasteko ilusio handiarekin nengoen. Baina, kaka! Etxera itzuli behar, ezer erakusten hasi aurretik! Hemen inguruan entrenatzen ibiltzen zareten tropeltxo horretako lagun batek azkeneko San Antoniori limosna noiz eman zenion galdetzeko esan digu. Kanpora noan aldiro kandelak piztu eta erre-

zaten ibiltzen den izeko bat badaukat, baina ez dakit ba ez ote dion okerrekoari erreza-tzen... Zein ama birjina edo nongo San Antoniori errezatu behar zaion galdetu beharko diot horri, dena beharko dut eta.

Zer gertatu zitzaizun zehazki laugarren etapa hartan?

Bezperan ere jausi egin ginen, pabesekeo etapen, eta ebagi bat egin nuen orkatilan. Benda bat jarri zidaten ebakia estaltzeko, baina lar estu, eta ez zion odolari zirkulatzen lagatzen. Medikiak nahi banu kentzeko esan zidan. Gelditu egin nintzen benda hori kentzeko, eta gero, tropela harrapatzeko, kotxe artean sartu nintzen, haizea kentzeko. 70 kilometro orduko abiadura gindoazen, ni kotxeari pega-pega eginda, eta halako batean zuloen bat edo harriren bat harrapatu nuen eta hegan irten nintzen.

Aurten bukatzen zaizu kontratua. Vuelta baino ez da gelditzen. Kezkatzen al zaitu dena karta batera jokatzeak?

Ez dakit zer izango den. Tourretik ebakuntza egin beharko zidatela sinistuta etorri nintzen, baina ematen du kirofanora sartu gabe pasa

ahal izango naizela. Apurtuta omen daukat, baina bere lekuan gutxienez, eta barixakuan esango didate zenbat denborarako izango dudana hau. Aurrekoan baino arinago erreku-peratzen banaiz, ikusi egin beharko da astirik daukadan Vuelta jokatzeko, baina ez dakit, ez du ematen denbora askorik izango dudarik. Urte aldrebesa izan da, eta ahaleginduko naiz ahalik eta ondoen preparatzen Vuelta. Hortik aurrerako ez dago nire esku. Nik ahalegina baino gehiago ezin dut egin.

Jausi eta amorratuta etxera itzuli behar izaten denean, izaten da lagunak zertan ari diren ikusteko gogorik?

Bai, gaurko etapa [martitzenekoa] ere ikusi dut. Ez da lasterketan bertan zaudenean besteko ilusioarekin jarraitzen, baina bai.

Tourrera joan aurretik Contador, Armstrong eta Andy Schleck ziren sailkapen nagusirako zure favoritoak. Mantentzen duzu kiniela hori?

Lehenengoa ziurtat joko nuke: Contador. Askok dabil, eta bera da Tourra irabazteko favoritoa. Hiru-lau asteko itzulietarako bera da txirindulari osoena. Andy ere ondo dabil. Pare antzean dabilta, eta gaur ere hor ibili dira mokoka, batak bestea erroberatik askatu ezinda. Aurten, gainera, erlojupeko gutxiago dago, eta hori beti ere Andyren mesedetan izango da, aurten azkenera arte ez dagoelako erlojupekorik. Horrek bizitasun handia ematen dio aurten Tourrari. Hala ere, nik uste dut oraindik Contador gehiago dela. Armstrongek, berriz, nire antzera, zorte txarra izan du, eta aukera denak galdu ditu. Samuk [Samuel Sanchezek] harritu nau. Ondo ibiliko zen itzaropena baneukan, baina horrenbeste ez nuen esango. Gaurko etapan [martitzenekoan] hirugarren jarri da.

Sailkapen nagusira begira, Samuel bera zen zuen liderra. Indartsu dagoela ematen du, baina gero eta taldekide gutxiago dauzka laguntzeko...

Bera ere gustura dago, bai. Aurrekoan bigarren egin zuen, eta handia egin zuen, baina hura irabaztea baino gehiago galtzea izan zen, lehenengo sartzeko aukera izan zuelako. Hala ere, sailkapen nagusian hirugarren jarri da, eta oraindik asko falta bada ere, oso ondo ikusten dut. Samueli lagundu ezinak ematen dit pena. Gu etapak jokatzeko as-

moarekin joan ginen Tourrera, baina orain, Samuelek lortu duen postu horrekin, gauzak apur bat aldatu egin dira. Postu hori mantendu behar da orain, eta horretarako denak zaindu beharko ditu Samuk. Ez dezala talde handiren batek ihes egin behintzat. Onenei jarraitu eta denbora handirik ez galtzea. Horixe bilatu behar da orain.

Zein estrategiarekin jokatu du orain Euskaltelek?

Samuri laguntzea izango da orain taldekide guztien lehenengo helburua, eta gero, Piriniotako etapak hurreratzen doazen ahala, etapa bat edo beste jokatzeko. Egia esan, arrazoia duzu. Ez dute erraza. Juango [Oroz] eta ni etxera etorrita, zazpi lagun baino ez daude han; gutxitxo, egin nahi diren gauza guztiak egiteko. Jokoa egingo nuke Piriniotako etapetan protagonista izango direla, baina apur bat mugatuta ibiliko dira.

Eta egoera horretan ihesetan sartzeko aukerarik ikusten duzu?

Bai, beti egongo da aukera. Ruben [Perez] bi egunetan hor ibili da, [Iñaki] Isasi ere ikusi du... Buru gehiagorekin jokatu beharko da, hala ere. Ezingo dira indar guztiak ihesetan galdu eman eta benetan laguntza eskaini behar den momentuan hustuta egon. Protagonista izaten saiatuko dira, baina beti ere pentsatuta Samuren ondoan egon behar dela.

Zein etapak markatuko du diferentzia?

Nik egia esan ez nuen uste Alpeetan horrenbesteko diferentziak egongo zirenik, baina demaseko diferentziak daude. Giroan ere hala izan da, eta ematen du txirindularitza apur bat aldatu egin dela eta edozer gerta daitekeela. Pirinioak, hala ere, demaseko gogorrak dira, eta hor *pajara* handiak ere izan ditzake jendeak, eta asko aldatu daitezke gauzak.

Makina bat euskal herritar batuko dira Piriniotako maldetan. Zuk zeuk badaukazu joateko asmorik?

Joango nintzateke gustura, baina jende guztia gainean izateko nahiago dut ez joan. Orain ere Markinatik kanpora nago. Etorri nintzenez denak nituen deika. Batak besarkada bat, besteak, aupada bat, eta hurrengoak, estutua... On beharrez ari ziren denak, jakina, baina gogorra da denei berdina kontatzen ibiltze hori norbera txarto

dagoenean gogorra da, eta iguindu egin nintzen.

Markinan, Karmen jaietako txupinazoa zeuk botako duzula ere entzun dugu.

Bai? Nik neuk ez dakit ba ezer. Ez, ez, hori ez da egia. Egun batzutarako kanpora alde egin dut gainera... Egia esaten badizut, gainera, orain momentuan ez nago jai askotarako. Edonon nekatzen naiz.

MOTZEAN

© Txirindulari osoena?

Contador.

© Itzuli gustukoena?

Tourra. Hori bai, sekulako gogoia daukat Giroa jokatzeko. Etapa gogorrak dira, paraje ederrak, eta zale asko batzen ditu.

© Hemen inguruan etapa bat antolatu beharko bazenu zein ibilbide prestatuko zenuke?

Sagar Errekako igoera ikaragarri gustatzen zait, eta esan eta esan ibili naiz Euskal Herriko Itzuliko antolatzaileei ere. Oker ez banago hurrengo urterako sartu dute. Sagar Erreka, Elgeta, San Migeldik buelta bat eta Arraten bukatu. Arrateko igoera oso berezia da niretzat, etxe aurretik pasatzen naitzelako. Sprinterrak torturatuko ditugu, akaso, baina bueno.

© Miresten duzun txirindulari bat.

Igor Astarloa eta Pello Arreituandia. Astarloak sekulako klasea dauka, berezko erraztasuna zeukan. Pello Arreitunandiarendik asko ikasi dut. Den-dena egiten zuen hark perfektu, eta nik dena ez, baina saiatzen naiz hari ikasitakoa betetzen.

© Txirindularitza ez den beste kirol bat?

Ikusteko asko daude, baina mendia ikaragarri gustatzen zait.

© Parrandarako leku bat? Denak ere onak. Nik askorik ezin izaten dut egin, baina herrikoak eta Ondarroakoak beti harrapatzen ditut.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Amatxo, elurra egongo da?

“...Egitasmo pedagogiko honen bi-dez, abentura dibertigarri eta ahaztezin bat eskaintzeaz gain, ohituretan, jarreretan eta baloreetan eragingo da...” zioen Atxutxiamaikako Udaleku irekietan izena emateko esku-orriak.

Eta bai, hala da. Asmatu dute gure seme-alabekin uztailleko goizetan egon diren begirale gazteek eta udalekuak zuzendu eta koordinatu dituztenek: Elgoibar eta ingurua ezagutu dute gure ume-txoek, eskulanak egin dituzte, sanferminetako entzierroa ere korritu dute...

Ama naizen aldetik, oso pozik nago nire semeek egun hauetan, ni lanean nengoela, ikasi dutena ikusita.

Nire seme zaharrenak badaki orain zer jaten zen aspaldi San Bartolome txiki eguneko sokamuturraren ondoren.

Amatxo, elurra egongo da San Roken? Galdetu zidan nire seme txikiak goiz batean, esnatu berri biberioa edaten ari zela; azkenengo aldiz neguan egon gineneko oroitzapena izango zuen... Ilusioz beteta joan zen Atxutxira egunero bezala, bere kamiseta naranja

jantzita, soka gorriari heldu eta San Roken gora.

Datorren urterako ere badaukagu udarako plana!!

I. E. C

Elgoibar berdea

Hurrengorako Udaleko diru partidak beste modu batera antolatzeko proposamena egin nahiko nuke:

Elgoibarko gazteen lokalen inguruan elgoibartar bakoitzari, ez dakit 18 urtetik gorako guztiei edo..., eskutitz bana bidali zaigu horren nondik norakoak azalduz, bi bai behintzat bakoitzari. Adin nagusiko hiru seme-alaba dauden etxe batera bost karta? Elgoibar berdea dela kontuan hartuta gehiegitxo, ezta? Ez al da nahikoa etxe bakoitzera bat bidalita? BARREN ere etxean bakarra jaso arren nahi duen guztiak irakurri dezake, ezta?

Lokal horietan egoten diren gazte asko eta asko Mintxetako igerilekura ere joaten dira. Hobe litzateke eskutitzen paperetan eta tintatan gastatu dutena beste sorosle baten soldatan gastatu izan balute!

E. S. I. C

OHARRA

Opor aurreko azkeneko alea duzu hau, irakurle. Hurrengo alea San Bartolome jaietan jasoko duzu, abuztuaren 23an.

OLASO TABERNA-JATETXEA

Abuztuko lehen eta laugarren asteetan irekita.
Deitu San Bartolome Jaietako erreserba egiteko.

Olaso Industrialdea, 15 · Tel. 943 74 31 85 - 636 01 57 07



Pedro Muguruza, 22
Tel.: 943 742 500
943 744 008
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

ERRETEGIA SAN BARTOLOME
JAIETAN IREKITA EGONGO
DELA GOGORARAZI
NAHI DUGU.
FESTETAN, BETIKO EGUNEKO
MENUARI, BOST MENU
BEREZIEI ETA KARTARI
EUTSIKO DIEGU.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 · 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel
MAKETATZAILEA Zalao Amaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Uhanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza, Jairo Berbel.
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Miriam
Garcia

Eva, ez dakit gure buru gaineko txorien arteko zenbagarren elkarrizketa den honako hau, baina onartu behar dut nire zozoari behintzat gero eta zailagoa egiten ari zaiola gai bat aukeratzea. Auzokide batekin igogailuan topo egin eta zer esan pentsa eta pentsa gelditzen zarenean bezala da. Azkenean, ezer hoberik aurkitu ez eta eguraldiari edo futbolari buruz hitz egiten amaitzen dugu askok.

Horrelako zeozer gertatzen da albistegi gehienetan azkenengo denboraldi honetan. Zer esan jakin ez, eta uztailean bero egiten duela albistea balitz bezala saltzen digute. Eta gai horrekin pasatzen dute futbolari buruz hitz egiten ez duten denbora guztia.

“Politikariak olagarro baten gaitasunari buruz iritzia ematen ikustea gehiegizkoa iruditu zait”

Futbolarena beste kontu bat da. Aste hauetan, bereziki, kirol atalek programazioaren hiru laurdenak baino gehiago bete dituzte, eta txutxumutxuei buruzko programen antza hartu dute.

Aspaldi konturatu nintzen albistegiak ez direla oso seriotzat hartu behar, baina egun hauetan kazetariak eta politikariak olagarro baten iragarpen gaitasunari buruz iritzia ematen ikustea gehiegizkoa iruditu zait.

Guzti hau aztertu ostean ondorio batera iritsi naiz: albistegietan kontatzen digutena eta edozein auzokiderek inogailuan hitz egin genezakena berdin-berdina da.



Eva
Garcia



Zer esan ez genekegula geunden, eta uztail honetan pil-pilean izan dugun gaia egokitu zaito gaurkoan zutabetxo honi, Miriam.

Urtero, gai jakin bati larregiko garrantzia ematen zaiola iruditzen zait: krisia, A gripea... Uda honetan futbola izan da. Eta gai batek arreta handiegia hartzen duen bakoi-tzean, sarritan, garrantzia handiagoa duten beste albiste batzuk alboratu egiten dira.



Hegoafrikakoa kontradizioz beteriko mundiala izan da: alde batetik, kirola, jakina, baina, bestetik, neurritz kanpoko aurrekontuak, aukeren arteko desberdintasunak, bazterketa eta miloi askotako hobari edo pizgarriak izan dira. Gai guzti horien inguruko informazioa jasotzea ez da erraza izaten. Hori dena badago, bai, baina oso tarte txikia eskaintzen diote albistegietan. Ahalegin mediatikoa gai xumeetara desbideratzen da: *jabulani*, *vuvuzela*, olagarroak, eta askotan mingarriak eta matxistak diren anekdotetan jartzen da arreta. Eta nik ere beste ondorio bat atera dut. Telezaborra, tamalez, ez da *reality show*-etara edo txutxumutxuen inguruko saioetara mugatzen.

“Telezaborra ez da ‘reality show’-etara edo txutxumutxuei buruzko saioetara mugatzen”

Nik neuk behintzat ez dut guzti hau behar. Intoxikatuta sentitzen naiz, nire osasun mentala larriki pozoitu dutela pentsatzen hasi naiz azkenaldi honetan. Futbolaren inguruan sortu diren kontu txikienean albistegietan zer nolako tartea bete duten ikusi ondoren, desinformazioak irabazi duela aitortu behar dugu.



Elgoibarko Udala



Sargoateko erromeria

UZTAILAK 25,
DOMEKA

ANTOLATZAILEAK:

Sallobenteko Jai Batzordea · Debemen
Elgoibarko Izarra · Elgoibarko Udala

11:00 Meza.

12:00 Salda eta txorizoa.

12:30 Bertsolariak eta trikitilariak.

13:00 Ardi-txakurren erakustaldia antzarekin.



AN
INTERIORES

PEDRO MUGURUZA ETORBIDEA, 5
ELGOIBAR
TLF. FAX. 943 743245
an@an-interiores.com



ESTUDIOA PROIEKTUAK ERREFORMAK DEKORAZIOA ALTZARIAK SUKALDEAK

eskernikasko inagurzioan gurekin egon zineten guztioi
Aintzane eta Nerea

**Idotorbe-San Pedro auzoko arraska oso zikina dago:**

“Joan zen astean egun pasa joan ginen Idotorbe-San Pedrora. Egia esan behar badut, leku zoragarria da. Geuk eraman genuen jaketkoa, eta hamaiketakoa egin eta hantxe bazkaldu genuen. Ondoren, ontziak garbitzera joan ginen hango arraskara, eta zikin-zikin zegoen. Zahartuta dago, eta bazter utzita. Nazka ematen zuen platerak eta ontziak han garbitzeak. Ez dakit noren ardura den hori zaintzea, baina mesedez eskatuko genuke arraska hori berritzea. Pena da dagoen moduan egotea. Mila esker.”



Urkaregi inguruan zeuden jarlekuak kendu egin dituzte: “San Migel gaina pasa, eta, Bizkaiarekin mugan dago Urkaregi, eta han zeuden jarlekuak kendu egin dituzte. Lehen bi jarleku zeuden, gero bakarra laga zuten, eta orain ez dago bakar bat ere. Leku polita da, eta paseatzera joaten den jendeari han esertzea gustatzen zaio, atsedena hartzeko. Ingurunea, bestela, ondo zainduta dago, baina herritar batzuk zikinkeria lagatzen dute han, zabor edukiontzia gertu dagoen arren. Era berean, Urtiako errebuelta ere apur bat gehiago zaindu behar dela iruditzen zait. Han ere bi jarleku zeuden, eta orain bakarra dago, baina batez ere, ingurune hori garbitu egin behar da. Sasi asko dago, eta zaborra pilatzen da. Lan gutxirekin ingurune hori oso polita laga daitekeela iruditzen zait. Mila esker”.

Jende askok kristalezko edalontziak eta botilak eramaten ditu Mintxetako igerilekuetara: “Debekatuta dagoela jarri arren, jende askok tabernatik igerilekuetako berdegunera eramaten ditu kristalezko edalontziak eta botilak. Umeak, eta baita nagusiak ere, ortozik ibiltzen dira, eta oinetan zauriren bat egiteko arrisku handia dago. Arauak errespetatu egin behar dira”.

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943 744 112

IV. URTEURRENA

IÑAKI CONTRERAS DE CASTRO

2006ko uztailaren 20an hil zen.

*Ez agurrik,
ez adiorik,
gero arte bakarrik.*

Elgoibarko koadrila



I. URTEURRENA

TRINIDAD LETE UGARTE

2009ko uztailaren 13an hil zen, 85 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztailak 17, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



1.905 ekintzatan esku hartu dute udaltzainek urteko lehenengo sei hilabeteetan

Epealdi horretan egindako 22 atxiloketa nabarmendu ditu Udaltzaingoak

Elgoibarko Udaltzaingoak 2010eko lehen sei hilabeteetako lanaren balorazioa egin du, eta epe horretan 1.905 ekintzatan esku hartu dutela adierazi du Javier Oñederra sargentuak. Herri-tarrei laguntza eskaintzeko egiten diren jarduerak izan dira gehienak: alarmak, giltzak ahaztea, kultur ekitaldiak, auzotarren arteko liskarrak. Arlo honetan, guztira, 336 jardueratan esku hartu dute.

Kalean kontsumitzen den alkoholari dagokionez, azken sei hilabeteetan, guztira, 84 identifikazio egin dira. Identifikazio horietan, kontsumitzen ari diren edariak kentzen zaizkie identifikatutakoek. Bestalde, identifikatutakoak adingabeak badira, gurasoei deitzen zaie, jakinararen gainean egon daitezen.

Udaltzaingoan 205 salaketa jarri dira. Horietatik 66 ondarearen aurkako delituei buruzkoak dira; 14, indarkeriaren, irainen eta mehatxuen kontra jarri direnak; eta 11, drogen kontsumoarekin zerikusia duten delituen kontrakoak.

Trafikoaren alorrean, Udaltzaingoak 49 istriputan esku-hartu du; bakarrik edo Ertzaintzarekin elkarlanean. Horrez gain, baztertutako 49 ibilgailu erretiratu dituzte kaletik. Udaltzainek, halaber, 113 ibilgailuren dokumentazioa aztertu dute, tartean, eskola-garraioko ibilgailuena ere bai. Kontrol "zorrotza" egin dute bereziki arazoak sortzen diren guneetan. Gune horietan, bestalde, 482 egiaztapen egin dituzte, eta egiaztapen horien artean, 103 arau-hausteak izan dira.

Azkenik, ordena publikoaren esparruko jardueretan, 141 pertsona identifikatu dituzte borroketan parte hartzeagatik, hiriko altzariak hondatzea eta bestelako liskarretan parte hartzea leporatuta.

Udaltzaingoaren lana datutan:

Trafikoa	126
Hirigintza	294
Establezimendu publikoak	45
Kale salmenta	36
Kale garbiketa, pankartak eta pintadak	27
Bide publikoan alkoholaren kontsumoa	84
Ordena publikoa	190
Animaliak edukitzea	27
Terrazak	2
Laguntzak	336
Galdutako gauzak	153
Eskaerak, kexak	153
Epaitegia	205
Jabetzaren aurkako ekintzak	84
Ibilgailuen lapurretak	6
Dokumentazio lapurretak	37
Dokumentazio galtzeak	38
Bide publikoan erorketak	10
Erasoak, irainak, mehatxuak	14
Genero indarkeria	3
Droga kontsumitzea edo edukitzea	11
Atxiloketak	22
Besterik	28

Aubixa barnetegia ezagutu dute ikastolako 150 umek



6 eta 10 urte bitarteko 150 ume egon dira Aubixan, lau txandatan. Azeri gaua, sorginen gaua, altxorraren bila, txantxa jolasak eta beste hainbat jolas egin dituzte. "Telebista eta PlayStationaz akordatu ere ez dira egiten", azaldu du Joseba Sagasta begiraleak. Aubixako literetan pasatako gauetaz eta Maritxu Loiolak sukaldean duen esku onaz ere gogoratuko dira umeak. Diskotekan egindako dantzaldiak eta Arrate-raino egindako txangoa ere aipatu dituzte gehien gustatu zaizkien ekintzen artean.

Izenak **Markel Olano eta Eneko Goia**



Markel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusia eta Eneko Goia Azpiegitura diputua Elgoibarren izan ziren joan zen eguenean, Zure Herrian ekimena aurkezteko. 60 herritar inguru bildu ziren Herriko Antzokian Foru Aldundiaren ekimena ezagutzeko.

Olanok esandakoaren arabera, une honetan krisiari aurre egiteko tresnak martxan jartzea da Aldundiaren lehentasuna. Horretarako, lau milioi euro inbertitu dituzte Debarreneko enpresetan. Elgoibari dagokionean, milioi bat euro inbertitu dituzte, berderatzi enpresetan banatuta. Elgoibar "nortasun industrial nabarmena" duen herria dela nabarmendu zuen Ahaldu Nagusiak, eta BPGaren % 58 industriatik datorrela esan zuen. Langabezia, bestalde, % 9 ingurukoa da Elgoibarren, eta Aldundiak emandako datuen arabera, azkeneko hiru hilabeteetan behera egin du.

Irudia **Udalbiltzaren aldeko agerraldia**

Ezker Abertzaleak, Aralarrek, EAK eta EAJK Udalbiltzari babes emateko agerraldia egin zuten eguaztenean, Udalbiltzaren kontrako epaiketa hasi bezperan. Udalbiltzaren kontrako prozesua salatu zuten, eta euren iritziz, *Egunkaria*-ren kontrako auziarekin gertatu zen bezala, Udalbiltzakoa ere testuinguru politikoan abiatu da. Era berean, "Udalbiltza bakearen inguruan sortu eta garatzeko ekimena" izan zela gogoratu zuten. Horrez gain, 22 auzipetuen absoltzioa eskatu zuten, akusazioak oinarri gabeak direla arrazoituta. Amaitzeko, bihar Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia egin diete herritarrei. 16:00etan irtengo da autobusa Txankakuatik.



Joanes Rodriguezek bi sari jaso ditu MUREn Ekiten programan

Mondragon Unibertsitateak ekintzaileentzako Ekiten programan parte hartu duten enpresa-proiektuak saritu ditu, eta Joanes Rodriguezen taldeak bi sari eskuratu ditu. Bata, taZEBAez-Team Coaching proiektuarekin [Gazteria, Aisialdia eta Kirol arloko ideien saria], eta bestea, Landazale Kooperatibarekin [Landa-gunea garatzeko ideia eta proiektuen II. lehiaketa]. Azken lehiaketa horretan hirugarren saria lortu du Garazi Konderen taldeak.



Jubilatuaren Eguneko bazkaria abuztuaren 29an

Abuztuaren 29an egingo dute jubilatuek sanbartolomeetako bazkaria, kiroldegian. Interesatuak 7 euro ordaindu beharko dituzte, abuztuaren 19a baino lehen. Egoitzako bazkideek bakarrik hartu dezakete parte ekitaldian.

Hastear dira trenbidean bigarren sahesbidea egiteko obrak

Bilbo-Donostia trenbide linearen 52/818 eta 53/601 kilometroen arteko zatian 782 metroko sahesbidea egiteko obrak berehala hasiko dituztela jakinarazi du Udalak. Plataforma berria egitea, burdinbidea muntatzea eta elektrizitate sistema berritzea izango dira egitekoak. Horrekin batera, 479 metroko bazterbidea ere egingo dute. Obrak irauten duen artean kamioiak ibiliko dira Andikano eta Errota-Berri zubien artean, eta Udalak "pazientzia izateko" eskatu die herritarrei.

Uztailaren 23tik 27ra ospatuko dituzte santanak Mendaron.

Zer falta zaie Mendaroko Santa Ana jaiei?



Juan Arriola
50 urte, irakaslea

Ez dakit! Ohituta gaude jaietako egitaraura, eta hortik ateratzea ez da erraza. Guk orain egunez bizi ditugu jaiak, eta umeek markatzen digute erritmoa. Gauez ibiltzen ginenean play-back lehiaketa gustatzen zitzaidan asko, baita sokamuturra eta Santa Anara igotzea ere.



Sonia Garcia
33 urte, supermerkatuko langilea

Azkenengo hiruzpalau urteetan ez naiz jaietan egon, eta aurten ere kanpora joango gara oporretan. Hala ere, umeentzako ekintza gehiago jarriko nituzke. Aurrekontu mugatua izango dute jaietarako, baina, nire ustez, egunez motz geratzen da egitaraua.



Vanessa Zubiaurre
31 urte, tailerreko langilea

Ez dut oraindik ikusi aurtengo egitaraua, baina su artifizialak falta direla esan didate, eta pena hartu dut. Niri asko gustatzen zaizkit, eta falta igarriko dut. Bestela jai politak izaten dira. Umeentzako barrakak ere ondo egongo lirateke, baina Mendaro herri txikia da horretarako.



Arantza Egaña
38 urte, tailerreko langilea

Umeentzako ekintzak falta direla iruditzen zait. Horrez gain, herriaren parte-hartzea bultzatuko luke ten ekintza gehiago jarriko nituzke. Su artifizialak, esate baterako, soberan daude niretzako. Jaietako egunik onena Santa Ana eguna da, dudarik gabe.

Aurten Santa Ana ermitara berriz

Erlojuaren kontra ari dira beharginak lanean, baina azken orduko ezustekorik ezean, jaietarako amaituta izango dituzte Santa Anako lanak. Mendaroko Udalak ia 200.000 euro bideratu ditu luperian jausitako mendi-hegala konpontzeko, eta aurten, Santa Anan bertan ospatu ahal izango dute mendarotarrek herriko patroia omenezko jai handia, uztailaren 26an. Nolanahi ere, gaur zortzi, hilaren 23an, lehortuko da festa Mendaron, Angel Bazterretxea abadeak botako duen txupinazoarekin batera.

Ainara Argotia

Mendaron estimatua dute oso Santa Ana ermita, haren inguruan ospatzen dutelako urtero herriko patroia omenezko jai. Orain urte eta erdi inguru, baina, luperia batek txikizio handia eragin zuen Santa Ana ermita inguruan, eta iaz, Trinitateko basilizan ospatu behar izan zuten jai, artean Santa Ana konpondu gabe zegoelako. Ordutik begi bat Santa Anan zutela izan dira mendarotar asko. Konponketa lanak, gainera, uste baino gehiago luzatu dira, eraikuntza sektoreko greba dela eta ez dela, eta azken unera arte, aurten ere Santa Anaren omenezko jai Trinitaten ospatu beharko zela sinetsita egon dira herritar asko. Baina ez. Irune Berasaluze alkateak jakinarazi du uztailaren 26rako amaituta izango dituztela lanik handienak, eta hortik aurrera, ingurua dotoretzea baino ez dela geldituko.

Espainiako Gobernuak Enplegu eta Toki Sostengurako sortutako diru fondoa baliatu du Mendaroko Udalak, obra hori egiteko: 198.810 euro. "Uste baino obra handiagoa izan da azkenean. Jausitako harriak erabili nahi zituzten, baina zeharoko eskasak zirela konturatu ziren, eta azkenean porlan dezente erabili dute horma altxatzeko. Grebak berak ere asko atzeratu du, astean bi egunean baino ez dutelako lan egin azkeneko hiru-lau astean", adierazi du alkateak.



Obreri esker, Santa Anarako betiko bidea ere errekuperatu ahal izan da. Azkeneko urteetan bueltako bidetik igo izan da prozesioa, baina aurten betiko bidetik igo ahal izango dira, obrak egiteko bide horretatik gora eta behera ibili direlako, eta era horretan, bidea ere zabaldu dutelako. Orain, bide hori trenbideko trabesekin egokituko dute bidea, eta baranda bat ere jarriko dute.



ANGEL
BAZTERRETXEA

Txupinazoa botatzeko ardura eman dizute aurten. Nola hartu duzu?

Oso pozik, egia esan. Etxapligua bera botatzek ez dit aparteko ilusiorik egiten, baina

horrek esan nahi duenak, bai, eta handia. Etxapligua botatzeko nirekin akordatu izana handia izan da niretzat.

Txupinazoa botatzeko orduan ez da sermoitan hasteko astirik izaten, baina zer esango zenieke gustura mendarotarrei egun horretan?

Eskerrak emango nizkieke, horrenbeste

urtean euren artean hartzeagatik. Ez dut nik eurek baino gehiago egin, egia esateko. Eurek bezalaxe aritu naiz herri hau hobetzeko ahaleginean. Eskerrik asko esango nieke bihotzez, eta jakina, ondo-ondo pasatzeko ere bai.

Zelan bizi ditu abade batek jaiak?

Ofizios, meza nagusia ematea tokatzen zait, eta horixe egingo dut. Jendea pozik ikusteak poz handia ematen dit neuri ere, eta poztasun horrekin bat egingo dut.

Zer gustatzen zaizu gehien jaietatik?

Mendaroko jaiak batera ospatzeak ematen dit poz handiena. Bi auzoak elkartatuta ikustea jaietan, horrek esan nahi duelako lehen bi herri zirenak aspaldi bat egin zutela eta Mendarok herri izaera hartu duela.

Batasun horrek ematen duen indarra berezia da. Aspaldi utzi nion gazte izateari, eta ezingo naiz gaupasa egunak-eta aitatzen hasi. Horregatik, Santa Ana eguneko meza eta batez ere meza osteko giroa aipatuko nituzke nik. Santa Ana ermitaren inguruan egiten den bertso saioa, hango txorizo muturrak... horixe nabarmenduko nik.

Gaupasa kontuak aipatu dituzu... Jaiak bekaturako egunak izaten dira, eta bada-go aurrez barkaziorik eskatzerik?

Bekatua jairik ez egitea izango litzateke, eta lasai ibili beraz. Herritarrei poztasuna eta ilusioa zapuztea da bekatua. Zer gauza hoberik ondo pasatzea eta zoriontsu izatea baino! Jaietan jai egin behar da, beti ere zentzunez jokatuta.

Danborrada, jaietako ikurra

Gazteak dira, baina eskarmentu handikoak. Ume-umetan sartu ziren danborradan, baina azkeneko urteotan aginte makila eskuan hartuta dabilta. Josu Motriko eta Joseba Mendikute dira, Mendaroko danborradako danbor nagusia eta kupel joleen zuzendaria, hurrenez hurren. Jaiak hasi baino bi aste aurretik galako jantzi ditu BARRENEK nagusien danborradako ikurrak.

Santa Ana bezperan, Santio egunez, jendetza handia batzen da urtero Mendaron, danborrada ikusteko. Egitarauko ekintzarik estimatuena da herritar askorentzat, eta inguruko herrietatik ere jende dezente etortzen da, danbor hotsek erakarrita. Arrakasta horren parte bat Josu Motrikori eta Joseba Mendikutei zor zaie, eurek direlako azken urteotan nagusien danborrada zuzentzen dihardutenak.

Hamazazpi bat urte beteko ditu aurten Josebak, kupel joleen gidari gisa. "Neuk agintzen dut, bai, nagusien danborradan sekula danborrik jo ez duen honek", dio irribarrez. Osabarengandik jaso zuen lekukoa Josebak, artean 16 bat urte zituenean, eta ordutik, behin baino ez du huts egin, orain lau urte. "Txekiara bidali ninduten lanetik, eta Eukene Gurrutzagak ordezkatu ninduen", zehaztu du. Aurretik, umeen danborradan ere ibilia da. "Birritan-edo joko nuen danborra, eta gero zuzendari jarri ninduten".

Josu Motriko ere aspaldian dabil danborradako saltsan. Hamabost bat urtean parte hartu du, eta orain sei bat urte danbor nagusi izendatu zuten. "Ordura arte Aitor Etxeberria mendaroarrak betetzen zuen lan hori. Nik neuk ez dut Aitor ez den beste danbor nagusirik ezagutu Mendaron, egia esan. Auskalo zenbat urte egin zituen hark", esan du.

Ilusio bereziarekin bizi dute Santa Ana bezpera. "Lehenengo urteetan urduri ere jartzen nintzen, frontoira iritsi eta hura jendez gainezka ikustean. Ume bat nintzen artean, eta horrenbeste jende nire agindutara izatea...", dio Mendikutek. Joan dira garai haiek, baina. Josebarekin batera danborrada bera ere hazi egin da, eta urtetik urtera gero eta jende gehiagok parte hartzen du. "Egon zen garai bat nahikoa apal zebilela, baina orain bost bat urte, ni neu danbor nagusi izendatu ninduten buelta horretan, gazte jende asko sartu zen, eta sekulako indarra hartu zuen. Primerako giroa izaten dugu. Eta kupel joleek zer esanik ez, danbor joleak hauen aldean serioak direlako", esan du Josuk kupel joleen arduradunari begira. Aurten, koadrilen egun berean izango da danborrada, eta artaldea besteetan baino aldrebestuago ibiliko ote den beldurrik baduten galdetuta, elkari begiratu eta ezetz erantzuten dute biek ala biek. "Gu beti bezain ondo zainduko gara", adierazi du Mendikutek. Ez dute, ez, gaizki zaindu-tako itxurarik.

**54 lagun daude
oraingoz danborradan,
baina interesatuek
azkeneko unera
arte eman ahal
izango dute izena**



LANDA

ERRETEGIA

Jaiak

ondo pasatu !!



 Garagarza, 32 · MENDARO

 ☎ 943 75 60 28



Bellotza

 Tel.: 943 756 252

 656 794 815

 610 733 488



Urteko 365 egunetan zabalik:

prentsa, loreak, opariak,...

 Deitu eta zure loreak eramango dizkizugu:

- Mendaroko ospitalera
- Tanatorio zerbitzua: koroak, erramuak,...
- Ezkontzak: emaztegaiaren lore-sorta, eliza, autoa,...

Mendaroko ospitalaren aurrean gaude

laz, berrogeitik gora kupel jole, eta hogeitaka danbor jolek desfilatu zuten Mendaroko kaleetan, asko eta asko emakumeak. Kupel joleak, esate baterako, emakumezkoak ziren guztiak. "Gustura ibili nintzen ni horrenbeste emakumeren artean. Danborradako protagonista nagusia hau da [Josu], eta ni haren laguntzailea, baina gustura nabil ni kupel jole artean, eta are gehiago iaz bezala denak emakumeak direnean. Hobeto, kalte", bota du Josebak.

Entseguak astean birritan

Joan zen astean hasi zituzten nagusien danborradako entseguak, eta astean birritan batzen dira. [Hilaren 23an egingo dute azkeneko entsegua, Elgoibarko Mausitxa txarangakoekin]. Dagoeneko, baina, herriko txikienek baino entsegu gehiago egin dituzte, umeen danborradako entseguak hasi ere ez direlako egin oraindik, eta hori dela eta, kantak ikasteko umeek baino zailtasun handiagoak ote dituzten galdetu die kazetariak. Argi hitz egin du Mendikutek: "Zailtasunak guk? Datozela elgoibartarrak Mendarora, hemengoak ez dauka Elgoibarko Trinitateetakoaren inbidiarik-eta!"

Azkeneko bi urtean bi kanta estreinatu dituzte: *Polka*, orain bi urteko danborradan, eta *Gau ibilera*, iaz, eta aurten zazpi kantu joko dituzte guztira. Hala ere, denean bereziena *Mendaroko Martxa* dela diote biek, Juan Colmenerok 1992an konposatutakoa. "Frontoian jotzen dugun azkena izaten da, gure kantu izarra", dio Josuk. Aurten, Elgoibarko Mausitxa txarangakoek ezarritako erritmora jardungo dute, azkeneko urteetan legez. "Debako Banda etorri izan da bizi osoan, baina orain bost bat urte Donostiako jazzalditik deitu zieten, eta hona etortzeari laga zioten".



Joseba Mendikute eta Josu Motriko.



Mendaro ikastola

Kilimon,2
Tel.: 943 756 141



MENDARO IKASTOLAKO TXOKOLOREN PARTEZ ONDO PASA JAIAKI!

PAGOERROTA

iturgintza





- Iturgintza
- Gasak
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza

Herriko Enparantza, 10 beheka (MENDARO)
Tel.: 943 756 044 - Faxa: 943 756 037 - Mugikorra: 659 334 323
www.pagoerrotaiturgintza.com
pagoerrotaiturgintza.com

Parte-hartze handiko jaiak

Beste herri batzuetako egitaraua osoagoa izango da, beharbada, baina Mendaroko santanek badute ezaugarri berezi bat: herriarren parte-hartzea. Txupinazoaren egun berean, esate baterako, batuka eta areto dantzak ikasten dihardutenek dantza ikuskizun aparta eskainiko dute frontoian, eta domekan, berriz, Santio egunean, herriko koadrilen arteko marmitako lehiaketa eta jolasak izango dira. Era berean, ezin aipatu gabe laga gau horretan egingo den play back lehiaketa.

Danborradaren ostean, jendetza handiena batu zuen ekitaldia izan zen iaz, eta aurten ere, hala izatea nahiko lukete antolatzaileek. Batuka eta areto dantzen ikuskizunaz ari gara. Gaur zortzi, txupinazoaren egun berean, urte guztian zehar ikasitakoa jende aurrean erakutsiko dute Mendaron batuka eta areto dantza ikasten dihardutenek. 19:45ean hasiko da ikuskizuna.



Koadrilen arteko txapelketa

Play back lehiaketak ere arrakasta handia izan ohi du Mendaron. Azkeneko urteotan parte-hartzea apala izaten zen, baina iaz sekulako indarra hartu zuen, hein handi batean, marmitako lehiaketa, koadrilen arteko jolasak eta play back lehiaketa batu egin zituztelako, eta saria eskuratu nahi zuenak hiru probetan parte hartu beharra zeukalako. Aurten ere, halaxe izango dela aurreratu du Alex Aranberri Kultura zinego-

tziak. Goizean hasiko da hortaz koadrilen arteko lehia. Eguerdian, marmitako lehiaketa egingo da frontoian, eta iaz legez, Aizpe, Bustin-Alde eta Kilimon gastronomia elkar-teenetako zuzendaritzako kide banak osatuko dute aurten epaimahaia. Ondoren, herri bazkariaren ostean, koadrilen arteko jolasak izango dira. Alaiki enpresak antolatuko ditu aurten jolasak, eta berrikuntza moduan Twisterra eta futbolina izango direla aurrera-

tu dute. Zalantzarik gabe, baina, gaueko play black lehiaketa izango da eguneko ikuskizun izarra. Oholtza gainera igoko dira herriko koadrilak, eta Lisker taldekoek izendatuko dute sariduna, koreografia onena eta originaltasuna aintzat hartuta. Hiru probetan puntu gehien batzen dituenak 500 euro jasoko ditu, eta 300 eta 150 euro jasoko dituzte bigarren eta hirugarren sailkatzen direnek.

Era guztietako arutz lanak (erreformak, sukaldeak...)

Ezenako
Arotzerixia

653 70 78 37 Mendaro

TAXI

Kontxi Urain
MENDARO

Mobila:
607 575 728

Etxekoa:
943 755 052

AUTOZERBITZUA

ELKAR

Kilimon Hiribidea, 5 behea
Telf.: 943 53 00 72 - Fax: 943 53 00 73
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

IRAOLA

Arotz lanak

Lurrak
Ateak
Lehiak
Armaru Espatriarrik

Azibar Iraolagoitia

Arno bide, 7 - Telf.: 943 49 74 85
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

Ondo
pasa
jaiak!

JAVI ZABALA, Lisiker taldekoa

“Familiakoak bezala dira guretzat mendarorarrak”



Orain dela zenbat urte hasi zineten Mendaroko jaietara etortzen?

Auskalo. Kontua ere balduta daukat, baina nik uste dut Mendaro herria sortu berrian izan zela. Ordura arte musika egiten genuen, baina beste era batekoa. 1985. urtean joango ginen gu lehenengoz Mendarora. Hutsen bat-edo egin dugu, beste herriren batera joatea hitzartua geneukalako, edo Mendaroko Udalak berak beste talderen bat ekartzea erabaki duelako, baina urte asko izan dira, bai.

Zer berezitasun dute Mendaroko jaiak?

Guretzako oso bereziak dira Mendaroko jaiak. Horrenbeste urteren ostean, familia-koak bezala dira guretzat mendarorarrak. Gure gazte garaian dantzan ibiltzen ziren gazte haien seme-alabak etortzen zaizkigu orain berbenara, eta polita da. Eibartarrak izanda, gainera, jende asko ezagutzen dugu hor, eta parrandarako lagun onak ere egin ditugu.

Parrandarako leku ona da orduan.

Egia esan parranda handiagoak egin ditut nik Eibarren eta Elgoibarren, esaterako, baina horko jaiak bereziak dira. Oso jai herrikoiak dira, eta plazan sekulako giroa sortzen da. Ez da jendetza handia batzen den herria, baina denek parte hartzen dute jaietan, eta horrek bereziak egiten ditu.

Asko kostatzen zaizue mendarorarrak dantzan jartzea?

Bueno... Nik uste dut zorionez ohiturak aldatzean doazela. Lehen, 80ko hamarkadan-eta, Mendaro bezalako herrietan jende heldua inguruan jartzen zen begira, eta umeak irteten ziren dantzara. Oso zaila izaten zen nagusi horiek dantzara ateratzea. Orain, baina, gero eta jende gehiago dabil. Mendaron ere lehenengo bi orduetan jende asko batzen da dantzarako. Nik uste dut jendea ari dela poliki-poliki lotsak alboratzen. Gure betebeharra plaza dantzan jartzea da, eta asmo horrekin joaten gara, joaten garen leku guztietara. Atera kontuak zer izango litzatekeen bestela!

Kantu berriren bat badakarzue aurten?

Zertxobait bai, baina aparteko handirik ez. Urtero saiatzen gara pare bat kantu berri sartzen, baina ez gara kantu bat irten be-

zain laster haren bertsoia egin zaleak. Gaurko kanta asko modan jartzen dira bat-batean, baina hilabetera ahaztu egiten dira, eta gero betikoek jarraitzen dute hor. Zeintzuk dira jendeak gehien estimatzen dituen kantak?

Nik uste dut rantxerek izaten dutela estimazio handiena. Eganek egindako bertsoiak oso gustuko ditu jendeak. Hori bai, euskal dantzek ere arrakasta handia hartu dute azken urteotan: zortzikoa, banakoa... Era berean, modako abestiak ere gustura hartzen ditu jendeak. Shakira, Juanes eta halakoen kantuak, adibidez. Esango nuke, hala ere, berriek baino estimazio handiagoa dutela betikoek.

Lisiker egitarautik kentzen duten egunean, ezusteko handia hartuko du batek baino gehiagok. Zuek noiz arte daukazue Mendarora etortzen jarraitzeko asmoa?

Gauza guztiek izaten dute hasiera eta amaiera, baina deitzen diguten bitartean gu oso gustura joango gara. Oso harreman estua daukagu herri honekin, eta benetan diotsut oso gustura joaten garela. Beharbada, muleta eta guzti joan beharko naiz egunen batean, baina bitartean goza dezagun.





SANTA ANA JAIK 2010

18 DOMEKA

- 11:00 Kalejira, Mendaroko txistulariekin.
- 12:00 Meza nagusia Goñati pilotalekuan.
- 12:30 Euskal dantzak.
- 14:00 Bazkaria Aizpe elkartearen.
- 18:00 Gelatxo taldearekin dantzaldia, Azpilgoetan.

23 BARIKAKUA

- 18:45 Txupinazoa. Angel Bazterretxea abadeak botako du, abadetzan egindako 50 urteengatik. Bizi Poza txarangak girotuko du txupinazoa.
- Ondoren Kalejira, buruhandi eta erraldoiekin.
- 19:00 Salbea, Azpilgoetako elizan, Eliz Abesbatzarekin
- 19:45 Batuka eta areto dantzen erakustaldia, frontoian.
- 23:00 Dantzaldia DJ Xaiborrekin, Herriko Enparantzan.

24 ZAPATUA

- 12:00 Haurren danborrada, Arno guraso elkarteak antolatuta.
- 17:00-20:00 Jumping eta ohe elastikoak ikastolako jolastokian. Txartelak ikastolan bertan jarriko dituzte salgai.
- 17:30 Zezen txiki eta pottokak, Herriko Enparantzan.
- 19:00 Haurrentzako jolasak, frontoian.
- 23:15 Hor Konpon Band taldearen kontzertua, Herriko Enparantzan.

25 DOMEKA

- 12:00 Koadrilen arteko marmitako lehiaketa, frontoian.
- 14:00 Herri bazkaria, frontoian.

Ondoren koadrilen arteko jolasak.

- 17:00-20:00 Jumping eta ohe elastikoak ikastolan.
- 19:00 Kalejira Bizi Poza txarangarekin eta buruhandiekin.
- 22:30 Nagusien tanborrada.
- 00:00 Lisker taldearen dantzaldia.
- 01:30 Play Back lehiaketa eta sari banaketa.

26 ASTELEHENA

- 10:30 Prozesioa Azpilgoetatik Santa Ana ermitaraino Mendaroko txistulariekin.
- 11:00 Meza nagusia, Santa Ana ermitan.
- Ondoren Erromeria Ostolaza eta Andonegi trikitilariekin eta Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariekin.
- 17:00-20:00 Jumping eta ohe elastikoak ikastolan.
- 18:00 Herri kirolak, frontoian. Gipuzkoako bigarren mailako aizkora finala eta txinga eroate txapelketak.
- 19:30 Kupela taldearen erromeria, Herriko Enparantzan.



KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA
CNCra AUTOMATIZAZIOA.
HERRAMINTA MAKINA BERRIA ETA
BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.

SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.

ESSER Industrialea SE-6 • 28850 Mendaro (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 650 / 639 710 163 • Fax: 943 740 346
www.santospaxi.com • comercial@santospaxi.com



Mendaroko Udalak
Santana jai zoriontsuak opa dizkizue.

LANA

ESKAERA

- Mutila sukaldari laguntzaile edo baserrian lan egiteko prest. ☎ **686 077 316**
- Emakumea lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu, edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Emakumea lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu, edo garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ **666 771 701**
- Emakumea lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu, edo garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ **686 234 612 / 671 476 869**
- Gizonezkoa lanerako prest. Sukaldari laguntzaile, lo-rezain edo igeltsero lanak egingo nituzke. ☎ **688 647 664**
- Emakumea abuztuan lan egiteko prest. ☎ **600 221 704**
- Gizonezkoa lanerako prest. Elektrizista edo margolari lanak egingo nituzke. ☎ **606 612 834**
- Emakumea lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu, edo garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ **666 771 701**
- Neska nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **638 338 816**

- Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu, edo garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ **648 603 029**
- Gizonezkoa lanerako prest. Nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako... ☎ **616 260 793**
- Gizonezkoa lanerako prest. Nagusiak zaintzeko edo igeltsero laguntzaile, banatzaile, sukaldari laguntzaile lanak egiteko. ☎ **638 344 377**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Or-dutegi malgua. ☎ **678 972 690**
- Neska lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak... Papelak dauzkat. ☎ **662 247 584**
- Mutil gaztea edozein lan egiteko prest. ☎ **633 517 236**
- 35 urteko emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **666 781 401**

ESKAITZA

- Zerbitzaria behar da. ☎ **943 741 600**
- Esperientziadun ile apaintzailea behar da. 1. mailako ofiziala. ☎ **943 530 000**
- Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira. ☎ **943 743 196**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **600 221 704**
- Etxea alokatzen dut. Hiru logela, eta garajea erabiltzeko aukera. ☎ **648 978 370 / 678 803 535**
- Apartamentua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa). Erdigunean. Prezio onean. ☎ **941 341 437 / 676 882 373 (Esther)**
- Etxea salgai Mendaron. Mendarozabal plazan. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. ☎ **943 033 493**


BESTELAKOAK

- Tabernerako tresneria salgai. Berria eta prezio onean. ☎ **687 077 398**
- Belarritakoa galdu dut tren geltoki inguruan. Perla urdina dauka, eta brillanteak. ☎ **676 889 260**



Badatoz San Bartolomeak !!!
Publizitatea jartzeko:
943 743 704






I. URTEURRENA

Andereño

JESUSA IRASTORZA ITURRIAGA

Zoriontsu izan gure Jesusa ametsez betetako loan, beti gogoan, beti lagun.



2009ko uztailaren 22an hil zen

Zure senar, ahizpa-nebak, senide eta lagunek, ez zaitugu ahaztuko.

Indiako eta Dagestango dantzariak hartuko dute parte Nazioarteko Folklore Jaialdian, Haritz taldekoekin batera

Uztailaren 23an izango da jaialdia Olaizaga kiroldegian, 22:30etik aurrera

Datorren barixakuan egingo dute Nazioarteko Folklore Jaialdia, eta aurretik Indiako eta Dagestango dantzariak hartuko dute parte, Elgoibarko Haritz dantza taldeko dantzariekin batera. Sarrera orokorrak 5 euro balio ditu, eta umeen eta jubilatuaren sarrerak, 3 euro. Nahi duenak aurrez erosi ditzake Txankakuaren dendetan, baina egunean bertan kiroldegian erosteko aukera ere izango da.

Indiako dantzak eta jantziak

Dantza talde honen helburu nagusia Indiako kultura sustatzea da. 1995etik gaur egun arte egin duten lana erakutsiko diete elgoibartarrei. Panghat taldeak bere emanaldietan eskaintzen dituen dantzak tokian tokiko irakasle adituen eskutik jasotakoak dira. Dantzarekin batera, arreta berezia eskaintzen diete arropari, eta beraiek diseinatutako jantziak erabiltzen dituzte emanaldietan.

Dagestango folklorea

Dantza baten izena eta Kaukasoko biztanleen ikurretako bat da Lezginka. Folklore Akademiako bakarlari izandako Tamkho Izrailov-ek sortu zuen dantza taldea, orain dela 50 urte. Kaukasoko folklorea oinarrituta daude taldearen dantzak, eta gehienetan gizon indartsua izaten da protagonista.

Nafarroako dantzak

Nafarroako dantzak izango dira nagusi elgoibartarren emanaldian. Hasteko, 1987an Juan Antonio Urbeltzek sortutako Irradaka dantza eta kantatuko dute Haritz Euskal Dantzari Taldeko neskek. Ondoren, Nafarroatik alde egin gabe, Otsagiko makildantzaren txanda izango da. Lesakako dantzak dantzatuko dituzte gero. Mutilek egingo dute San Fermin egunean dantzatzeko den ezpata-dantza. Amaitzeko, Iribasko Ingurutzua taularatuko dute. Dantza hori 1936. urtetik dantza gabe egon zen, harik eta 1969an Argia dantza taldeak berreskuratu zuen arte.



Indiako Phangat taldea.



Dagestango Lezginka taldea.



Elgoibarko Haritz dantza taldea.

Gazteen parte-hartzea sustatzeko egitaraua prestatu dute jaietarako

Aspaldiko erreka jaitsiera berreskuratu dute



Egitarau parte-hartzailea prestatu dute Gazte Asanbladak eta herriko hainbat gaztek Sanbartolomeetako gazteen egunerako. Koadrilen arteko gin-kana moduko bat antolatu dute. Egun osoan zehar egingo dituzte ekintzak, eta amaieran puntu gehien dituenak irabaziko du. Koadrilaka eman beharko da izena, eta ekintza guztietan parte hartu beharko da. Irabazleek Elgoibarko baserrietako produktuez osatutako otarre bat jasoko dute. Interesatuak uztailaren 20tik abuztuaren 24ra bitartean eman beharko dute izena, Lanbroan, Iratxon, Toletxen edo gaztetxean.

Urteroko goitibehera jaitsieraren ondoren, txaranga poteoa egingo dute. Ondoren marmitako prestaketa hasiko da, eta 15:00etan bazkaria egingo dute Madalan. Herri kirolak izango dira ondoren, eta 19:30ean errekan behera jaitsiko dira. Partaide bakoitzak bere txalupa egin beharko du. Gauean kontzertuak izango dira, eta musika taldeen atsedendietan soka saltoan jardun beharko dute. Kontzertuaren ostean banatuko dituzte sariak.

Madalako jaiak ospatuko dituzte hilaren 22an eta 23an

Txapliguak bota eta kanpakiak joko dituzte uztailaren 21ean, Madalako jaiari hasiera emateko. Eguenean, Madalena Eguenean, gazte bazkaria egingo dute Madalako parkean. Bakoitzak bere bokadilloa eraman beharko du, eta antolatzaileek banatuko dituzte edariak eta postrea. Interesatuak Gazte Informazio Bulegoan eman behar dute izena, uztailaren 21a baino lehen. Bazkaldu ondoren karaokea izango da, eta 17:30etik aurrera Andoni DJak jarriko du musika. Barixakuan, umeentzako jolasak egingo dituzte goizean, eta 21:00etan magia eta monologo saioa eskainiko du Miguel Miguel aktoreak. Amaitzeko, Eibarko Aduña folk taldearen emanaldia izango da.

Domekan amaituko da kirol argazkien lehiaketan parte hartzeko epea

Domekara arte egongo da kirol argazkien lehiaketarako erretratuak aurkezteko epea. Hiru sari banatuko dituzte antolatzaileek: herritarraren saria, gazteen saria eta 35 urtetik gorakoaren saria. Informazio gehiago 943 744 112 telefonoan.

I. URTEURRENA

Andereño

JESUSA IRASTORZA ITURRIAGA



Zure senar, ahizpa-nebak, senide eta lagunak, ez zaitugu ahaztuko.

2009ko uztailaren 22an hil zen. Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, uztailak 24, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



AITOR ARRIETA

Auto gidaria

Ofizioz aparejadorea eta afizioz auto gidaria da Aitor Arrieta. Orain dela hiru urte hasi zen auto lasterketan parte hartzen, eta behin probatuta, ezin izan du laga. Abiadura, gasolina usaina eta motor zarata gustatzen zaizkio 25 urteko gazte honi.

“Bidea libre dagoela jakin eta paretik inor ez dela etorriko jakitea sekulakoa da”



Arg.:Aitor

Arrateko igoeran parte hartu berri duzu. Zer moduz moldatu zara?

Ondo, oso pozik geratu naiz lortutako emaitzarekin. Euria egin zue-
nez, errepidea bustita zegoen, eta hori mesedegarria izan zen gure-
tzat. Espainiako Txapelketarako puntuagarria da Arrateko igoera, eta
hirugarren postua eskuratu dut bi faseetan. Euskal Herriko txapelke-
tan, bestalde, txapelduna izan naiz nire mailan.

Rally eta igoeretan ibiltzen zara. Zein da bien arteko ezberdintasuna, eta zein gustatzen zaizu gehiago?

Rally-etan kopilotoarekin joaten gara, eta igoeretan, bakarrik. Ibilbide guztia, lotura egiteko bideak, denborak, ordutegiak, kontrolak, pape-
leoak, lasterketako notak kantatu... hori guztia kontrolatzea kopilotoa-
ren lana da. Bestalde, igoerak laburragoak izaten dira. Desberdina da,
baina biak ditut gustuko. Niri gehien gustatzen zaidan lasterketa Az-
koitiko rallysprinta da. Pena da, baina aurten ez da egingo.

Zein ezaugarri ditu zure autoak?

2002ko Renault Clio Sport autoa da, eta 2002an Clio Kopa eskuratu
zuen Alberto Hevia gidariak. Autoaren laugarren jabea naiz. Pozik na-
bil autoarekin, baina zenbait arazo eman dizkit: motorra apurtu nuen,
bi enbrage hondatu ditut, martxa kuxkak ere arazoak izan ditu eta pa-
re bat kolpe ere hartu ditut. Kolpeen errua nirea da, jakina, baina gai-
nerakoena ez. Autoak horretarako prestatuta daude, eta ondo eran-
tzun behar dute. Konponketa eta azterketa mekaniko guztiak neuk
egiten dizkiot autoari, baina kolperen bat hartzen dudanean, karroze-
roarengana eraman behar izaten dut. Nire etxe azpian dute tailerra Jo-
se Luis eta Enrike Egañak, eta haiei begira ikasi dut dakidan apurra.
Eskerrak eman nahi dizkiet bie.

Noiz eta nola hasi zinen auto lasterketan?

Txikitan aitarekin joaten nintzen Arrateko igoera ikustera, baina etxean
ez da egon horrelakoetarako zaletasunik. Niri betidanik gustatu izan
zaizkit autoak, eta lanean hasi nintzenean erosi nuen lehenengo au-
toa. Renault 5 bat zen, eta poliki-poliki lasterketarako prestatu nuen.
Escuderia Eibar taldean eman nuen izena, eta lasterketarako lizen-
tzia atera nuen. Orain dela hiru urte egin nuen debuta, Kantabriako
igoera batean. Iaz denboraldi erdia egin nuen auto harekin, eta gero
berria erosi nuen. San Migelgo rallysprintean estreinatu nuen Renault
Clio-a.

Mundu honetan sartu zinenean, zer esan zizuten etxean?

Hasieran kezkatuta, baina dagoeneko ohitu dira. Seguritasun neurri
handiak daude, eta oso ondo kontrolatuta dago dena. Autoa, jantziak,
kaskoa, jarlekuak... dena iraungitzen da, eta bost bat urtean behin al-
datu egin behar izaten dira. Baditugu babesle batzuk, eta eskerrak
eman nahi dizkiet, haien laguntzarik gabe ezinezkoa litzatekeelako au-
rrera egitea.

Elgoibarren badago auto lasterketarako zaletasunik?

Gero eta gehiago. Beste herri batzuetan gehiago dago, baina Elgoi-
barko gazteen artean ere ikusten da mugimendua. Gazte batzuk las-
terketa guztietara joaten dira. Eskerrak ematen dizkiet babesle ematen
didaten lagun eta ikusle guztiei.

Zer da zuretzako gidatzea?

Abiadura sentitzea izugarria da. San Migelen edo Arraten 150 kilome-
tro orduko abiadura hartu izan dut. Bidea libre dagoela jakin, eta pa-
retik inor ez dela etorriko jakitea sekulakoa da.

Realak lagatako bi jokalariz izango ditu CD Elgoibarrek datorren denboraldian

Realaren kontrako partidarako sarrerak salgai daude

Alex Ruiz atezainak eta Edu Santamaria erdilariak CD Elgoibarren jokatu dute datorren denboraldian, Realak lagata. Bi jokalariz horiek Realeko jubenilen taldean jokatu dute. Bi horiez gain, Eibar B taldeko Julen Pousa, Imaz eta Luis Perez, eta Audio taldeko Aitor Martinez ere fitxatu ditu CD Elgoibarrek. Momentuz, beraz, sei jokalariz berriren izenak ziurtatu dituzte, baina beste pare bat jokalariz ekartzeko asmoa ere badutela aurreratu dute.

Realaren kontrako partida

Realak eta Haundik Mintxetan jokatu duten partidarako sarrerak salgai daude, dagoeneko. Kaia, King-Kong, Jai



Alai, Lanbroa, Aterpe eta Gorbea tabernetan eskuratu daitezke. Sarrera orokorrak 12 euro balio ditu; jubilatuen sarrerak 6 euro eta umeenak, 2 euro. Partida hilaren 30ean jokatu dute, 19:00etatik aurrera.

22:00ak aldera iritsiko dira Ehun Milak ultratraileko parte hartzaileak Otsaurtiara

Bergara aldetik iritsiko dira Ehun Milak ultratraileko lasterkariak Elgoibarrera, 22:00ak aldera. Irukuruzetatik barrena, Otsaurtiara helduko dira, ondoren Azkaratera jaisteko. Handik Urnobotzara igoko dira, eta gero Madariaga aldetik Erlorantz abiatuko dira. Otsaurtian 40. kilometroa beteko dute mendizaleek, eta handik aurrera beste 127 kilometro egin beharko dituzte. Lasterkarietako animoak emateko trikiti festa antolatu dute Morkaiko kideek.

Imanol Arguesok irabazi du 40-15 tenis txapelketa

Imanol Argueso eibartarrak irabazi du 40-15 tenis txapelketa. Zapatuan jokatu zuen finala, Debako Markel Aranberriren kontra, eta bi setetan (6-2 eta 6-4) irabazi zuen eibartarrak. Bi jokalariek joko ona erakutsi zuten, baina Arguesoren sake bortitza erabakiorra izan zen finala irabazteko. Guztira, 50 lagunek hartu dute parte txapelketan. Padel txapelketa, bestalde, Jose Luis Etxanizek eta Patxi Vallejosek irabazi dute.

Mendaroko pala txapelketako finala, gaur

Mendaroko pala txapelketako finala gaur jokatu dute, Gallas eta Etxebek osatutako bikoteak Leiaristiren eta Juanjoren kontra. 22:00etan hasiko da partida.

Sigma pilota txapelketako finalak uztailaren 25ean

Sigmako pilota txapelketako finalak uztailaren 25ean jokatu dituzte, 11:00etatik aurrera. Aurten 80 pilotari inguruk hartu dute parte txapelketan, infantil, benjamin, lehenengo eta bigarren mailan. Elgoibartarrez gain, eskualdeko pilotariek ere jardun dute, azken urteotako txapelketa jendetsuenean.

Gotzon Zulaika mendarorak irabazi du Zumaiako Flysch Trail mendi lasterketa, 23 urtez azpikoetan

Gotzon Zulaikak irabazi du Zumaiako Flysch mendi lasterketa, 23 urtez azpikoetan. Mendi Lasterketen Euskadiko Kopako hirugarren proba izan zen domekakoa, eta azken probaren faltan lider da mendarorak. Mikel Arosa elgoibartarra laugarren postuan sailkatu da, maila berean.

Senior mailan, bestalde, zortzi elgoibartarrek hartu zuten parte, eta Ander Barrenetxea izan zen denetan artean bizkorrena. Eguraldi sargoriari aurre egin behar izan zioten korrikalariek 28 kilometroko lasterketan.

NAGUSIEN SAILKAPENA

40.	Ander Barrenetxea	2:19:01
70	Roberto Gonzalez	2:27:02
129	Iosu Mendikute	2:37:35
137	Asier Arrieta	2:38:09
228	Ion Ulibarri	2:53:34
229	Arkaitz Irueta	2:53:40
281	J. Ramon Ortuoste	3:11:49
316	Iker Leonardo	3:28:58



OSPAKIZUNAK URTEBETETZEA




Zorionak **Juanitori**, BARRENEKO kolaboratzaile finenari. Hartu indarra, hemen ikusi nahi zaitugu berriz eta!

OSPAKIZUNAK URTEBETETZEA



...maite zaitut, pila, pila, pila, patata tortila, maite zaitut, maite, maite zaitut, ilargiraino ta buelta maite zaitut... Zorionak, **Alex**, 3 urte beteko dituzulako. Telmoren partez.

OSPAKIZUNAK EZKONTZA



Zorionak, **Nerea eta Iban!** Zapatuan egun bikaina pasatu genuen zuen omenez.

OSPAKIZUNAK EZKONTZA



Aitzi eta Julen, zorionak eta zorterik handiena abentura berri honetarako. Koadrilakoak.



• Ondo pasa zuen ezkontza egunean! Lagunen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Aratz eta Iñigo**, urtebete eta 11 urte egin dituzuelako. Etxekoen partez.




• Zorionak, **Iñari!** Oihanen eta etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Roberto eta Irene**, hilaren 15ean urrezko ezteiak egin dituzuelako. Bereziki, biloben partez.



• Zorionak, **Nerea eta Nagore**, zuen urtebetetzeagatik eta oso nota onak atera dituzuelako. Amamaren partez.




• Badator gerturatzten zuen ezkontza eguna. Zorterik onena biontzako! Ane, Laura eta Jonen partez.



• Zorionak, **Nora**, 10 urte egin dituzulako. Ondo-ondo pasa, eta muxu pila bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Maria**, hilaren 20an 3 urte egingo dituzulako. Gurasoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Julen**, familiakoen, eta bereziki, Maria eta Anderren partez.



• Hurrengo ostiralean urte bat egingo duzula! Zorionak eta muxu pila bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Asier**, zure lehenengo urtebetetzean. Elgoibarko lehengusina Ihintza eta Aroaren partez.



• Zorionak, **Andrea**, Familiakoen eta Mendaroko lagunen partez.



• Zorionak, **Elber**, etxekoan partez.



• Mila kilo zorion, **Ariz**, atzo 7 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Nahial** Zenbaki berri bat ikasi duzula: bi! Muxuak amamaren eta izekoren partez.



• Zorionak, **Maria**, asteazkenean 6 urte handi egin zenituelako. Oso ondo pasatu genuen. Muxu pila bat familiakoen partez.



• Uztailaren 28an urte bat beteko duen etxeko printzesarentzat mila kilo zorion. Zorionak, **ponpoxa**.



• Zorionak, **Edume**, uztailaren 31n zure eguna delako. Aurten bai! Mila kilo zorion Koskiren eta amaren partez.



• Zorionak, **Asier**, uztailaren 9an 13 urte egin zenituelako. Segi horrela! Familiakoen partez.



• Zorionak, **Iria**, atzo 4 urte egin zenituelako. Familiakoen partez, muxu bat.




• Mila kilo zorion gure etxeko mutil guapo eta jatorrenari, hilaren 25ean 8 urte egingo dituelako. Arreba Intza eta lagunen partez.



• Zorionak, **pirata txiki** Domekan primeran pasatuko dugu! Txokomarrubizko hiru patxo zuretzat! Pa, pa eta pa!



• Zorionak, **Joao**, abuztuaren 9 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Nerearen eta Leireren partez.



• Zorionak, **Ibai**, zure bosgarren urtebetetzean. Familiakoen, eta bereziki, Naroaren partez.



• Zorionak, **Iratil** Laster 4 urte! Muxu handi bat aita-txoren, amatxoren eta Oierren partez.



• Zorionak, **Xabi**, 9 urte egin dituzulako. Etxekoan, eta bereziki, Beñaten partez.



• Zorionak, **Mikel**, pasaden domekan Zumaiaiko Flysh Trail lasterketan lortutako postuagatik. Segi horrela! Koadrilakoak.



• Zorionak, **Irune**, gure etxeko printzesa, abuztuaren 5ean 3 urte beteko dituzulako. Ondo pasa!




• Zorionak, **June**, igandean 4 urte beteko dituzulako. Zu bai handia! Etxeko guztion eta, bereziki, lagoren partez.



• Zorionak, **Helene**, familiakoen partez. Muxu asko. Maite zaitugu.



• Zorionak, **Urtzi eta Haizea**, 4 urte egingo dituzuelako! Etxekoan, eta bereziki, amamaren partez. Muxu bai!



• **Roberto eta Irene**, 50 urte elkarrekin! Ondo pasa urrezko ezteietako ospakizunean.



• Uztailaren 31n egun berezia dugu, etxeko printzesa ezkontzen delako. Zoriontsu izan!

OKINDEGIA UZTAILA

18 domeka EIZAGIRRE
25 domeka FOTERO
31 domeka IBARRENEA

OKINDEGIA ABUZTUA

1 domeka IBARRENEA
8 domeka FOTERO
15 domeka IBARRENEA
22 domeka BOLINTXO
24 domeka EIZAGIRRE
29 domeka BOLINTXO

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik

www.elgoiBARREN.net

16 barixakua

Bilera

19:00 Sanloren batzar orokorra
Sanlo eskubaloi elkarteak urteko batzarra egingo du, musika eskolako auditorioan.

Kizola

22:00 Ultratrail lasterketari ongietorria

Morkaiko mendizale elkarteak antolatuta, trikitifesta izango da Otsaurtian.

17 zapatua

Antzerkia

18:30 'Elefante bitxia'

Umeentzako antzerkia, Altzolako frontoian. Antolatzailea: Zubibai elkarte.

18 domeka

Irteera

10:30 Altzola-Beraseta baserria ezagutzen

Altzolako iturrian elkartu ondoren abiatuko dira Altzola-Beraseta baserria ezagutzera. Antolatzailea: Zubibai elkarte.

23 barixakua

Dantza

22:30 Nazioarteko Folklore

Jaialdia

Haritz dantzari taldeak antolatuta, Olaizaga kirolegian.

24 zapatua

Azoka

9:00 Hileko azken zapatuko feria

Elgoibarko baserrietako produktak jarriko dituzte Nafarroa plazan, eta ganadu erakusketa izango da Plaza Txikian.

25 domeka

Irteera

10:00 Harrikrutz eta Urkuluko urtegira irteera

Antolatzailea: Zubibai elkarte.

«Acantilado rojo»
16, barixakua:
22:30

«Los mundos de Coraline»
17, zapatua:
22:30

«Furia de Titanes»
24, zapatua:
22:30

«Oceanos»
25, domeka:
22:30

«El pequeño Nicolás»
30, barixakua:
22:30

«Que se mueran los feos»
31, zapatua:
22:30

FARMAZIAK

UZTAILA

16 Garitaonandia
17 Zabaleta
Goizez, Yudego
18 Zabaleta
19 Ibañez
20 Yudego
21 Etxeberria (Errosario)
22 Fernandez
23 Yudego
24 Etxeberria (Errosario)
25 Etxeberria (Errosario)
26 Yudego
27 Ibañez
28 Etxeberria (Errosario)
29 Zabaleta

30 Ibañez

31 Yudego

ABUZTUA

1 Yudego
2 Zabaleta
3 Etxeberria (Santa Ana)
4 Ibañez
5 Yudego
6 Yudego
7 Ibañez
Goizez, Etxeberria (S.A.)
8 Ibañez
9 Yudego
10 Zabaleta
11 Etxeberria (Santa Ana)

12 Ibañez

13 Yudego

14 Etxeberria (Santa Ana)

15 Etxeberria (Santa Ana)

16 Fernandez

17 Garitaonandia

18 Zabaleta

19 Etxeberria (Santa Ana)

20 Zabaleta

21 Garitaonandia

22 Garitaonandia

23 Etxeberria (Santa Ana)

24 Fernandez

25 Fernandez

26 Garitaonandia

27 Etxeberria (Santa Ana)

28 Fernandez

Goizez, Etxeberria (S.A.)

29 Fernandez

30 Garitaonandia

31 Etxeberria (Santa Ana)

IRAILA

1 Fernandez

2 Garitaonandia

3 Zabaleta

4 Fernandez

5 Fernandez

6 Ibañez

7 Garitaonandia

8 Etxeberria (Santa Ana)

9 Fernandez

10 Garitaonandia

MADALAKO JAIK

UZTAILAK 21, EGUAZTENA

19:30 Txapliguak eta kanpai jotzea

UZTAILAK 22, EGUENA

15:00 Gazte bazkaria

Ondoren, Karaokea

Segidan, DJ Andoni

UZTAILAK 23, BARIXAKUA

Goizean, umeentzako jolasak

21:00 Magia eta monologo saioa

Segidan, Adunia folk taldea

Olvia
Laser depilazioa

San Inazio, 4 behea
20870 Elgoibar
Telf.: 943 742 725
www.ammergroup.es

• **LPG:** 395 euro (10 sesio + proba doan)
Plataforma bonoa opari

• **Presoterapia:** 150 euro (10 sesio + proba doan)

• **Laser diodo** (%20, %30 eta %50 deskontuarekin)

LPG



Orain **120€** arte aurreztu ditzakezu hurrengo erosketarako.



Uztailaren 8tik 21era arte, Urola EROSKI Hipermerkatuan, "Doaneko produktuak" aukeratzen badituzu, kutxatik pasatzerakoan, beharpen bale bat emango dizugu produktu horiengatik ordaindu duzun zenbatekoaren ordainetan.

Adierazitako Produktua bilatu!

Eta 2010eko uztailaren 22tik abuztuaren 11ra arte egiten duzun hurrengo erosketan, zuzenean zenbateko hori deskontatuko zaizu ordainketatik. Erraza benetan!



*Produktu bakoitzetik ale bat deskontatuko da eta beharpena 120 eurokoa izango da gehienez ere. Hurrengo erosketan baleak trukatu ahal izateko, gutxieneko erosketan zenbateko bat eskatuko da, txartel bakoitzaren zenbatekoaren arabera. 4 sustapen txartel truka daitezke gehienez erosketan bakoitzean.



EROSKI

UROLA

zurekin

LERUN **JATETXEA**

Ondo pasa Sanbartolomiak!



Ordutegia

Astelehenetik ostiralera

7:00etatik aurrera

Larunbatetan

8:00etatik aurrera

Igandeetan

11:00etatik aurrera

Eguneko menuak • Asteburuetan bazkari eta afariak

SANBARTOLOMEETARAKO MAHAIA ENKARGATU NAHI BADUZU DEITU!



- Wifi
- Ospakizunak
- Pintxoak enkarguz enpresetara eramaten ditugu



Tel.: 943 74 31 96 • Lerun, 6 (Netto Merkatalgunea)